

# UDALEKO ALKATE ETA ZINEGOTZIEN JARDUNERAKO KONPROMISOAK ETA NEURRIAK

## ZIOEN AZALPENA

Gaur egun ia adostasun osoa dago administrazio publikoa kudeatzeko garaian eduki beharreko irizpideen inguruan: gardentasuna, interes publikoa nagusi izatea, kargu publikoa alderdiaren edo norberaren xedeetarako ez erabiltzea, karguarengatik eduki daiteken informazio pribilegiatua ez erabiltzea norberaren onurarako, administrazio kontratazioetan publizitate eta konkurrentzia printzipioak, langileen hautaketarako meritu eta gaitasuna, gastu publikoaren kontrol zorrotza, e.a.

Hau horrela izanik, oso arduratuta eta sentsibilizatuta gaude hainbat hamarkadatan ustelkeria oso praktika zabaldua bihurtu duen sistemarekin eta bereziki azken bolada luzean estatu mailan eta baita Euskal Herrian ere nozitzen ari garen kasuekin; hasi Barcenas auzitik eta Nafarroako Kutzako xahutze sistematikotik eta hainbat udalerrietan ikusi ditugun jarreretaraino.

Jokabide hauek, gainera, bizi garen sistema sozioekonomikoan dute oinarri sendoa, nabarmentzekoa baita gizarte molde honen erroetan eta kultura demokratikoaren ezan ustelkeria ernamuntzeko baldintzak egokitzen direla: irabazi eta etekin-asmo mugagabea, neurririk gabeko kompetentzia, handinahikeria...

Gauzak horrela, gobernu eta administrazio publikoetako ustelkeriak eta zilegi ez diren praktikek honako ondorioak ekartzen dituzte:

- Baliabide publikoak desbideratzea eta alferrik galtzea.
- Herritarrek zinegotzi eta alkateak urruneko eta autoritario gisa ikustea
- Erakunde publikoen eraginkortasunik eza.
- Gobernu-programetan ezarritako helburuak ez betetzea
- Herritarren arazoak eta beharrak ez konpontzea.
- Azpiegitura publikoak murriztea.
- Politikan bezeroen zerbitzuan aritzea.
- Justiziaren lana oztopatzea.
- Gobernuarekiko eta erakundeekiko konfiantza galtzea.

Guzti honek, dudarik ez da, hautetsi edo alderdi politiko guztiak berdinak direnaren sentsazioa gero eta gehiago errotu du jendartean eta herritarren politikarekiko interesik eza eta gure bizitzako funtsezko gaietan erabakiak hartzeari buruzko interes eza ere elikatu du nabarmen.

Horren guztiaren jakitun, eta konfiantza praktika onekin eta bertute zibikoaren bitartez irabazten dela jakinda (zintzotasuna, leialtasuna, egiazkotasuna, justizia soziala, herritarren arteko berdintasuna, eredugarritasuna eta austeritatea), bizitza politikoa eraberritu behar dela argi dago, herritarra erabakien erdigunean jarriz eta eguneroko jardunean protagonista bihurtuz.

Hau horrela izanik, funtzionamendurako neurriak zehaztuz **UDALEKO ALKATE ETA ZINEGOTZIEN JARDUNERAKO KONPROMISOAK ETA NEURRIAK** finkatzea egokia da, ondoren jasotzen diren aspektuetan oinarritua; horietako asko legezko eduki hutsak dira eta beste batzuk kudeaketa publikoa hiritarren kontrolpean egotearen beharrean oinarritzen dira.

# **NEURRIAK**

## **1.- PRINTZIPIO OROKORRA**

Errespetua oinarri izanik, pertsona eta erakunde orekin arduraz eta begirunez jokatzeari, aurreiritzirik eta diskriminaziorik gabe, dagokion duintasun osoaz.

Halaber, bere kudeaketako eremuaren baitan dauden pertsonak errespetatzea, bere lanarekiko satisfazio eta efikazia optimizatuz. Autoritatearen erabilera desegokia saihestea.

## **2.- KONTRATAZIO PROZEDURAK**

- Kontratazio administratiboaren legea betetzeaz gain, legediak ezartzen dituen baldintzetatik haratago joanez kontrataziorako protokolo propioak ezarriko dira. Besteak beste, kontratu txikietan ere (obra kontratuak eta zerbitzu eta hornigaietarako kontratuak) gutxienez hiru eskaintza eskatuko dira (4.000 eurotik beherakoetan izan ezik) eta abar.

- Kontratazio prozeduran, gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntza eta berdintasun irizpide eta klausulak bermatuko dira.

- Kontratazio mahai guztietan udaleko talde guztien presentzia bermatuko da. Hau da, gobernu taldeko ordezkariak gain, udalean ordezkaturik dauden talde guztiek prozeduran parte hartzeko aukera izanen dute, salbuespenik gabe. Kontratazio prozedura guztiak gardentasun irizpideen arabera landuko dira.

- Izapidetzeko agindutako edo aurkeztutako mota guztietako espedienteak aztertzeko eta sailkatzeko parte hartzen den prozedura guztietan, prozedura horiek arautzen dituzten plegu eta ordenantzen arabera jardungo da betiere. Araututako hasierako diskrezioa salbu, gardentasun eta aniztasun handiena bermatuko da betiere. (Zehapen-espedienteak, kontratazio-mahaiak, lehiaketak, diru-laguntzen banaketa, beste ekarpen batzuk, eta abar).

## **3.- KUDEAKETARAKO NEURRIAK**

- Gobernu-batzordean udalean ordezkaturik dauden talde guztiek batzordeko parte izateko aukera izanen dute, salbuespenik eta betorik gabe.

- Gardentasunaren eta informazioaren berme moduan eta zinegotzien eguneroko lana errazteko helburuarekin, astero Udaleko erregistroko sarrera-irteeren inguruko informazioa (zerrenda) eskuragarri izanen dute hautetsi guztiek, mugarik gabe.

- Gardentasuna bermatzeko helburuarekin, udaleko web orrialdearen bidez herritarrek informazio guztia eskuragarri izan dezaten erraztuko da (osoko bilkuretako aktak, batzordeen eta osoko bilkuren deialdiak, ordenantzak...). Halaber, osoko bilkuretako saioen grabaketak eta erretrasmisioak bermatuko dira (baldintza teknikoak betetzen dituzten udalerrietan).

- Hautetsiek, edozein erantzukizun dutela ere, bide egokiak ezarriko dituzte herritarrek gai publikoetan parte hartzeko aukera errazteko. Iradokizunak, proposamenak eta kexak jaso eta haiei erantzutea, bilerak adostu eta egitea, jendartearen ezagutaraztea eta herritarren taldeek sustatzen dituzten jardueretan inplikatzeari...

- Udal honetako kargu publikoek ez dute esku hartuko beraientzat interes ekonomikoren bat izan lezaketean auzietan, ezta beste edozein abantaila ekar liezaiekeen auzietan ere, abantaila hori norberarentzat nahiz familiarteko batentzat izan (bigarren gradura bitarteko familiartekoak); betiere, auzi horiek haien egiteko publikoarekin lotuta baldin badaude.

- Halaber, egoera berean, ez dute parte hartuko sozietateekin edo enpresekin lotutako auzietan, baldin eta azkeneko bost urteotan horietan zerbitzu ordainduren bat modu iraunkorrean eman badute, edo ebazpenaren aurreko bost urteetan interesik edo partizipaziorik izan badute. Hala gertatuz gero esku hartzeari uko egin beharko dio, eta egoeraren berri eman beharko dio dagokion arduradun politiko edo administratiboari. Ezinen du, inolaz ere, manuko batek ebatzi.

- Hautetsiek espediente guztiak eskuragarri izanen dituzte baina ezin izanen dituzte udaleko espediente originalak hartu eta udaletik eraman. Espediente hauen erabilera udal jardunera soilik mugatuko da eta informazio eskubidea bermatu behar den moduan, informazioaren erabileraren zaintzarekin ere zintzo jokatu behar dugu. Halaber, beharrezkoak dituzten kopia guztiak atera ahal izango dituzte.

- Karguaren ondorioz eskuratutako pribilegiozko informazioan oinarrituz inolako eragiketarik ez da burutuko.

- Bere eskura jarritako baliabide material eta giza baliabideak, kudeaketa administratiboaren lanarentzat zorrotz erabiliko da, erabilera partikularrak edo udal jarduketarenak ez diren erabilerak saihestuz (Udaleko autoen edo udal langileen erabilera adibidez), udalgintzako jarduerarekin talka egin dezaketean jarduerak ez burutuz eta karguaren iraupena bukatzen denean udalera itzuliz.

- Ez egitea inongo konpentsaziorik, promes edo atentziorik hiritarrei, harreman edo lan pertsonalen ordainetan.

- Kargu publikoek, kargu hori edozein dela ere, ezinen dituzte honakoak onartu, ez zuzenean ez zeharka: opariak edo dohaintzak; haien neutraltasuna baldintza dezakeen dirua, ezta doaneko edo ohikoa baino interes txikiagoko maileguak; zuzenean haien egiteko publikoarekin lotuta ez dauden gonbidapenak edo bidaiak.

- Hala eta guztiz, nolabaiteko oparirik jasoz gero, hautetsiek Udalean utziko dute eta beharrak dituzten eragileei bideratuko zaizkie, erabilera publikoa lehenetsiz.

#### **4.- ALKATEAREN ETA ZINEGOTZIEN GASTUAK**

- Alkateak, ordezkari eta protokolorako gastu partida propio bat izanen du, Udalean protokolo gastuak aurrakusten badira behintzat.

- Funtzio horietara bideratzen diren gastuak soilik udalarekin zerikusi zuzena dutenak izanen dira. Alkateak partida hori arduraz eta proportzionaltasunez kudeatuko du inolaz onargarri izanen ez direlarik helburu pertsonal edo partidu interesak bultzatuta egiten diren gastuak. Era berean onartezinak dira luxuzko kontsidera daitezkeen gastu guztiak. Egin beharreko bidaiak behar bezala justifikatuko dira txosten baten bidez, eta bertan zehaztuko dira bidaiaren helburuak eta izandako emaitzak.

- Alkateak hilerordezkari eta protokolo gastuak direla eta, egindako gastuen berri emanen du Ogasun Batzordearen aurrean eta herritarrei begira, bertan beharrezkoak diren frogagiri eta bestelakoak aurkeztu beharko dituelarik.

- Zinegotziek, karguaren egikaritzan izandako gastuak kobratu ahal izanen dituzte. Horretarako beharrezkoa izango da kontu-hartzailearen aurrean frogagiri eta bestelakoak aurkeztea. Gastu hauek Ogasun

Batzordetik hilean behin pasako dira.

- Protokolorako partida egokitzen den kasuetan, hilabetean zehar Alkate eta zinegotziek izandako gastuen berri emanen da osoko bilkuran eta Ohiko Plenoen gai-ordenan puntu finkoa izatera pasako da eta herritarrei jakinarazteko tresna desberdinak erabiliko dira, publiko eginez.

- Alkateak ordezkari eta protokolo gastuetarako Visa txartel bat beharko balu, txartel hau oso kasu zehatz batzuetara bideratuta egongo da non udalari gastu batzuk egitea dagokion: Udala ordezkatzuz udalerritik kanpora egiten diren bidaietara, autoritateekin bilera edo ekitaldiak daudenean,... Txartel horren kontrola Kontu-hartzaileak egingo du eta bera izango da txartelaren gordailuzain. Alkateak txartelaren beharra duen aldiro kontu-hartzaileari eskatu beharko dio zertarako behar duen adieraziz. Gerora, gastuak behar bezala justifikatu beharko ditu dokumentu honetan ezarritako pausoen arabera.

## **5.- JARRAIPENA**

- Zehaztutako neurrien betetze maila neurtzeko Jarraipen-batzorde bat osatuko da eta gutxienez hiru hilabetetik behin elkartuko da ebaluatze lana egiteko.

- Hautetsiok, behin gure ardurak amaitu ondoren, gure jardunaren inguruko azalpenak emanen ditugu Udalak horrela eskatuz gero.

- **UDALEKO ALKATE ETA ZINEGOTZIEN JARDUNERAKO KONPROMISOAK ETA NEURRIAK** izeneko dokumentuan aurreikusten diren neurriak betetzen ez dituen hautetsiaren jokabidea aztertzeko, ikerketa batzordea osatuko da eta bertan gaia landuko da eta dagozkion ondorioak proposatuko ditu. Helburu horretarako, udal honetako hautetsiek ez dute trabarik edo mugarik jarriko.

## **6.- AZKENA**

Udal honetako kargu publiko guztiek berariaz onartuko dute aurreko **UDALEKO ALKATE ETA ZINEGOTZIEN JARDUNERAKO KONPROMISOAK ETA NEURRIAK** dokumentua, dokumentua sinatuz eta idatzi horri behar adinako zabalkundea emanez.